

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## I+Gko proiektuetarako laguntza berriak urte anitzekoak eta beste erakunde batzuen laguntzekin bateragarriak izango dira

*Herritarrek parte hartu dute 12 milioiko diru-laguntza horiek arautzen dituzten Garapen Ekonomikorako Departamentuaren oinarrietan, eta teknologia-zentroek nahiz unibertsitateek ere eskuratu ahalko dituzte*

Martes, 16 de febrero de 2016

Nafarroako Gobernuak Nafarroako ikerketa eta garapeneko proiektuei emandako laguntzak urte anitzekoak izango dira, tartean dauden egikaritze nahiz finantzaketako beharrei erantzuteko. Gainera, beste erakunde publiko-pribatu batzuk emandakoekin bateragarriak izango dira.

Bestalde, 2015eko aurreko deialdiarekin alderatuz, teknologia-zentroek eta unibertsitateek bazkide modura eskuratu ahalko dituzte, orain arte kontratatuak izan zitezkeenak soilik. Horrenbestez, Departamentuak ezagutzaren transferentzia eta enpresen nahiz jakintza-zentroen arteko lotura sendotu nahi ditu.

Haiek dira aurtengo deialdian ezarriko diren berrikuntza nagusiak, eta egikaritzeko bi urte arteko proiektuak jasotzen ditu Nafarroako Gobernuak 3 milioi euroekin finantzatuz 2016an, 6rekin 2017an eta 3 milioirekin 2018an. Laguntza horiek Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen ditu % 50eko tasan [Nafarroako EGEF Programa Eraegilea 2014-2020](#)ren bitartez.

Herritarrek [parte hartu](#) dute laguntzak arautuko dituzten Garapen Ekonomikorako Departamentuaren oinarrietan, Nafarroako Gobernu Irekiko webgunearen bidez eta enpresa nahiz teknologia-zentroi egindako jakinarazpenen bidez. Ekarpenak egiteko epea, [fomento.innovacion@navarra.es](mailto:fomento.innovacion@navarra.es) helbide elektronikoen bidez, 2016ko otsailaren 18an, osteguna, amaituko da.

Deialdiaren oinarriek beste alderdi garrantzitsu batzuk jasotzen



Bi profesional laborategi batean.

dituzte, ikerketa-taldean emakumeen presentzia babestea, esaterako (100 etik 5 puntu emango dira), eta ETEek sustatu edo parte hartutako proiektuak babestea, enpleguari eta garapen ekonomikoari egindako beren ekarpena aitortzeko eta ekimen berritzaileak abiarazten zer zailtasun dauden ikusirik. Gainera, proiektuak sektore estrategikoetan jartzea ere puntuatuko da, adibidez: energian, nekazaritza-elikaduran, biomedikuntzan, fabrikazio aurreratuan eta IKTtan.

Oinarriek ere laguntzaren gehieneko zenbatekoak mugatzen dituzte finantzaketa ahalik eta eskatzaile gehienek jaso ahal dezaten. Laguntzak inbertsoaren % 10 eta % 80 artean daude, enpresa, proiektu eta modalitatearen (banaka edo kolaboratzailea) arabera, 300.000 eta 500.000 euro arteko mugekin proiektu bakoitzeko.

Zirriborroan jasotako zenbait neurri Nafarroako Gobernutako programa-akordiotik datoz: I+G+Bko aurrekontuak lehiakortasunean eta kalitatezko enpleguaren sorreran eragin zuzena izanik; erabakitze-gunea Foru Komunitatean mantentzearen alde egiten duten Nafarroako enpresak babestea; multinazionalekin elkarrekiko onura-harremana izatea; edo kontratua eta diru-laguntzetan generoko klausulak sartzea.